



politika-
eta administrazio-
antolamendua

Espainiako Konstituzioak udalerrien autonomia bermatzen du, 140. artikuluan. Udalerriek erabateko nortasun juridikoa dute, eta haien gobernu eta administrazioa haien udalbatzei dagozkie. Udalbatzak alkateek eta zinegotziek osatzen dituzte. Auzotarrek bozketa orokor, berdin, aske, zuzeneko eta isilpekoaren bidez hautatzen dituzte zinegotziak, eta zinegotziek hautatzen dute alkatea.

Udalbatza, udal gobernuan herritarren ordezkari politiko gorena duen organoa, 27 zinegotzi hautetsiek osatzen dute, haren burua alkatea delarik. Besteak beste, Udalbatzak gobernu-organoa kontrolatu eta ikuskatzeko eskudantza dauka, bai eta erregelamendu organikoa eta ordenantzak onestekoa, udal-mugapea zedarritzeari eta aldatzeari dagozkien erabakiak hartzekoa, aurrekontuak onetsi eta aldatzekoa eta beste toki-entitate edo administrazio publikoei eskumen-gatazka aurkeztekoa ere.

Alkatea da Udalbatzako burua. Udaleko gobernu eta administrazioa zuzentzeko ardura du, bai eta Udalaren ordezkari aritzekoa, Udalbatzaren osoko bilkuretarako deia egin eta bertan buru jardutekoa, bandoak ematekoa eta udal-zerbitzu eta -obrak zuzendu, ikuskatu eta bultzatzekoa ere. Aurrekoaz gain, langile guztien goi-buruzagitza betetzen du. Alkateari dagokio, halaber, alkateordeak izendatzea. Haien ordeztzen dute alkatea, hark kargua hutsik lagatzen duenean eta kanpoan edo gaixorik dagoenean. Alkateak zinegotziak eskuordetzen ahal ditu, berezko dituen hainbat eskumenerarako. Zinegotzi delegatuak deitzen diren zinegotzi horiek ahalmen, eskubide eta betebeharraren jabe bilakatzen dira, alkatearen eskumenerakoak eta eskuordetzan emateko modukoak izaki eskuordetzan hartutako aferetan. Udal-administrazioaren antolamendu orokorra kudeaketa-alorren bidez gauzatzen da. Alorrek zinegotzi delegatu bana dute haien buru.

Alkateak eta legean ezarritako zinegotzi-kopuruaren herena baino gehiagokoa ez den zinegotzi-kopuru jakin batek osatzen dute tokiko **gobernu-batzarra**. Horren eginkizunak, besteak beste, hauek dira: erregelamenduen eta ordenantzen zein aurrekontuen proiektuak onestea, osoko bilkurak onetsi beharreko hiri-antolamendurako tresnen proiektuak onestea eta edozein eratako lizentziak ematea, baldin eta legeek beste organoren bati ez badiote egozten eskumen hori.



Udalbatzak **batzordeak** ditu, eta batzorde horietako kideak udal-taldeek izendatzen dituzte, talde bakoitzak zenbat zinegotzi hautetsi eduki eta horren proportzioan betiere. Batzordeek alkatearen eta gobernu-taldearen kudeaketaren segimendua egiten dute. Hauek dira egun dauden informazio-batzordeak: Lehendakaritzaren eta Kontuen Batzordea -zeinak Lehendakaritza, Toki Ogasuneko, Herritarren Segurtasuneko, Herritarren Partaidetzako eta Teknologia Berrietako eta Merkataritza eta Turismo Alorrei nahiz Kontuen Batzordeari berari dagozkien aferak jorratzen baititu-; Herritarrendako Zerbitzuen Batzordea -non Kulturari, Garapen Iraunkorrari, Gizarte Ongizateari eta Kirolari, eta Hezkuntza eta Gazteriari buruzko gaiak lantzen baitituzte-; eta, azkenik, Hirigintza Batzordea -bertan Hirigintza eta Etxebizitzaren, Mugikortasunaren, Proiektu Estrategiko eta Obren eta Hiri Kontserbazioaren inguruko gaiak aztertzen dituztelarik-.

Oposizioan dauden taldeek edota zinegotziek dela Osoko Bilkuran edota Bozeramaileen Batzordean arituz dela batzordeetan eta beste hainbat organotan parte hartuta heltzen diote Udaleko jardunari.

Iruñeko Udalak, bestalde, hainbat erakunde ditu bere baitan, hala nola Haur Eskolak eta Hirigintza Gerentzia, bai eta fundazio batzuk ere, Gayarre Antzokia fundazioa edo Erruki Etxea kasu. Beste enpresa batzuetan ere badu parte Udalak, kasu baterako, ondokoetan: Comiruña (% 100), Mercairuña (% 51), Asociación Navarra de Informática Municipal-Animsa (% 78), Pamplona Convencion Bureau (% 31, 4), Udal Laguntza Etxean SA-Asimece (% 100) eta Pamplona Centro Histórico (% 100).

*Guztira Udalak 13 alor ditu,
eta sei enpresatan dauka partaidetza.*



Zinegotziak

Unión del Pueblo Navarro (UPN)

Yolanda Barcina Angulo
José Iribas Sánchez de Boado
Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia
Ana Pineda Abel de la Cruz
José Javier López Rodríguez
Francisco Javier Lorente Pérez
Ana Elizalde Urmeneta
Eduardo Palacios Sureda
Paz Prieto Sáenz de Tejada
Fermín Alonso Ibarra
Cristina Sanz Barrios
Valentín Alzina de Aguilar
(Teresa Moreno Purroy hil zenean sartu zen,
haren ordeztan, 2008ko abuztuaren 10an)
Ignacio Polo Guilabert

Nafarroa Bai (NaBai)

Uxue Barkos Berruezo
Iñaki Cabasés Hita
Isabel Aramburu Bergua
Itziar Gómez López
Javier Ayesa Dianda
Txema Mauleón Etxeberria
Aritz Romeo Ruiz
Rosa Navarro Izco

Nafarroako Alderdi Sozialista (PSN)

Javier Torrens Alzu
Maite Esporrín Lasheras
Jorge Mori Igoa
Eduardo Vall Viñuela

Zinegotzi atxiki gabeak

Mariné Pueyo Danso
Mikel Gastesi Zabaleta

Zinegotzigoak

Zinegotzi delegatuak

José Iribas Sánchez de Boado
Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia
Ana Pineda Abel de la Cruz
José Javier López Rodríguez
Francisco Javier Lorente Pérez
Ana Elizalde Urmeneta
Paz Prieto Sáenz de Tejada
Fermín Alonso Ibarra
Ignacio Polo Guilabert

Ardura zein alorratan

Lehendakaritza, eta Hezkuntza eta Gazteria
Hirigintza, eta Etxebizitza eta Garapen Iraunkorra
Toki Ogasuna, eta Merkataritza eta Turismoa
Proiektu Estrategikoak
Gizarte Ongizatea eta Kirola
Mugikortasuna eta Herritarren Segurtasuna
Kultura
Herritarren Partaidetza eta Teknologia Berriak
Hiri Kontserbazioa

Auzoko zinegotziak

I. eta II. Zabalguneak
Alde Zaharra
Sanduzelai
Mendillorri
Azpilagaña
Etxabakoitz
Iturrana-Abejeras
Arrotxapea
Donibane

Zinegotzi bereziak

Eduardo Palacios Sureda
Cristina Sanz Barrios
Valentín Alzina de Aguilar

Funtzio Publikoa
Berdintasuna eta Gazteria
Hezkuntza

Txantrea
Mendebalde- Ermitagaña
Milagrosa

Tokiko Gobernu Batzarra

Osaera

Batzarburua: Yolanda Barcina Angulo (alkatea)

Zinegotzi-idazkaria: José Iribas Sánchez de Boado (lehen alkateordea)

Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia (bigarren alkateordea)

Ana Pineda Abel de la Cruz (hirugarren alkateordea)

José Javier López Rodríguez


Francisco Javier Lorente Pérez

Ana Elizalde Urmeneta

Paz Prieto Sáenz de Tejada

Fermín Alonso Ibarra

Ignacio Polo Guilabert



Batzordeak

| Izena | Izaera |
|----------------------------|------------|
| Herritarren Aferak | Iraunkorra |
| Lehendakaritza eta Kontuak | Iraunkorra |
| Hirigintza | Iraunkorra |
| Kontuak | Berezia |
| Erosketa Batzarra | Berezia |

Udal-erakunde autonomoak

- Hirigintza Gerentzia
- Haur Eskolak

Udal-partaidetzako enpresak

Menpeko sozietateak (udal-partaidetza)


- > Udal-partaidetza osokoak:
 - Comirufña, S.A.
 - Pamplona Centro Histórico, S.A.
 - Udal Laguntza Etxean, SA (ASIMEC)
- > Udal-partaidetzakoa, gehiengoarekin:
 - Asociación Navarra de Informática Municipal, S.A. (ANIMSA)
 - Mercairufña, S.A.
- > Udal partaidetzakoak, gehiengorik gabe:
 - Pamplona Convention Bureau

Udal-fundazioak:

- Gayarre Antzokia Fundazioa
- Erruki Etxea



Erakunde autonomoak, udal-enpresak eta fundazioak



13 alor (4)

Hirigintza Gerentzia

Haur Eskolak

(1) Administrazio-zuzenbideko arauen menpean.

(2) Udal-partaidetza duten enpresak, erabat edo gehiengoaz.

(3) Estatutu juridiko berezi baten menpekoak.

(4) Udal-alorrak:

Gizarte Ongizatea eta Kirola

Zuzendaria: Rosa López Garnica

Idazkari teknikoa: Ana Góngora Urzáiz

Merkataritza eta Turismoa

Zuzendaria: Silvia Azpilicueta Rodríguez-Valdés

Idazkari teknikoa: Carmen Alemán Iturri

Hiri Kontserbazioa

Zuzendaria: Óscar Esquíroz Noble

Idazkari teknikoa: Javier Barace Egaña

Kultura

Zuzendaria: Teresa Lasheras Balduz

Idazkari teknikoa: María Josefa Itoiz Beunza

Garapen Iraunkorra

Zuzendaria: María Teresa Martínez Remírez

Idazkari teknikoa: María del Mar Indave García

Hezkuntza eta Gazteria

Zuzendaria: José Carlos de la Dehesa Villar

Idazkari teknikoa: José Manuel Santana Toledo

Toki Ogasuna

Zuzendaria: Íñigo Huarte Huarte

Idazkari teknikoa: Nuria Larráyoiz Ilundain

Mugikortasuna

Zuzendaria: José Reyes Alcacer

Idazkari teknikoa: Jesús Salinas Andueza

Herritarren Partaidetza eta Teknologia Berriak

Zuzendaria: Juan Echenique Huarte

Idazkari teknikoa: Almudena Alonso Arteaga

Lehendakaritza

Zuzendaria: Julio Sucunza Azcona

Idazkari teknikoa: Alfredo San Miguel Díaz

Proiektu Estrategikoak

Zuzendaria: José Vicente Valdenebro García

Idazkari teknikoa: Francisco Linero Palacios

Herritarren Segurtasuna

Zuzendaria: Francisco José Fernández

Elizalde

Idazkari teknikoa: Jesús Salinas Andueza

Hirigintza eta Etxebizitza

Zuzendaria: Enrique Maya Miranda

Idazkari teknikoa: María Pilar Muñoz Soria

Udal Gerentzia

Gerentea: José María Jiménez Bolea

Alkatetza Kabinetea

Zuzendaria: Ana Setién Rodríguez

Idazkari teknikoa: Fátima Baigorri Romero

Hirigintza Gerentzia

Gerentea: Enrique Maya Miranda

Gerentearen ondokoa: Izaskun Zozaya Yunta

Hiria Zaharberritzeko Bulegoa

Arduraduna: Alberto Calvo Azagra

Idazkari teknikoa: María Esther Azanza Fernández

Haur Eskolen Erakunde Autonomoa

Gerentea: José María Ros Antona

ANIMSA

Gerentea: Jesús García Fernández

Pamplona Centro Histórico

Gerentea: Íñigo Sanciñena Morales

Comiruña

Gerentea: Pedro Lafuente Vicente

ASIMEC

Gerentea: Miguel Ángel Irisarri Mateo